


# LABURPENA

2023an EAeko antzerkiaren programazioan eta sorkuntzan emakumeek eta gizonek izandako presentziaren eta parte hartzearen azterketa



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Emaitzen laburpena

2023an EAEko antzerkiaren programazioan eta sorkuntzan emakumek eta gizonek izandako presentziaren eta partaidetzaren azterketa

Jarraian azalduko ditugun datuek labur-labur erakusten dute EAEko antzerkiaren errealitatea, emakumek eta gizonek eremu horretan duten presentzia eta partaidetza kontuan hartuta.

Azterlana bi ataletan banatu da: batetik, **antzerki-programazioa** eta, bestetik, **antzezlanen sorkuntza**. Guztira aztertu den lagina hauxe izan da, **362 emanaldi** (% 95eko konfiantza-maila eta  $\pm$  % 4,95eko errore-marjina) eta **120 sorkuntza** (unibertso osoa). Bi ataletan, emanaldietan eta/edo sorkuntzetan, interpretazioan, egiletzan eta zuzendaritzan gizonek eta emakumek duten presentzia aztertu da, mota askotako aldagai kuantifikagarrietan sexu bakoitzaren presentziak duen eragina aztertzeko.

Erabilitako datu-iturria **[www.kulturklik.euskadi.eus](http://www.kulturklik.euskadi.eus)** izan da, eta EAEn 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindako antzerki-jarduerak eta urte horretan bertan EAEn ezarritako taldeek estreinatutako antzezlanak aztertu dira, web-plataforma honetan daudenak.



# 1. Programazioaren analisia

## 1. Programazioaren analisia

### 1.1. Gizonen eta emakumeen presentziaren banaketa orokorra


INTERPRETAZIOA	
<b>% 47,7</b>	<b>% 53,3</b>
EMAKUMEA	GIZONAK
EGILETZA	
<b>% 30,6</b>	<b>% 69,4</b>
EMAKUMEA	GIZONAK
ZUZENDARITZA	
<b>% 36,3</b>	<b>% 63,7</b>
EMAKUMEA	GIZONAK

Gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa da aztertutako hiru dimentsioetan: egiletza, zuzendaritza eta interpretazioa. Azken hori da desberdintasunik txikiena duena.

Egiletza eta zuzendaritza dira gehien maskulinizatutako eremuak, eta ezaugarri hori agerian geratzen da, bai gizonen eta emakumeen presentzia handiagoagatik, bai 2023an antzerki-emanaldian parte hartu duten taldeen sexuaren arabera banaketagatik (emakumeak bakarrik, gizonak bakarrik eta mistoa).

Azken batean, emakumeek presentzia nabarmena dute interpretazioan, baina agerian geratzen da presentzia galdu egin dela erabakiak hartzeari lotutako jardueretan, besteak beste egiletzan eta zuzendaritzan.


1. grafikoa. Taldeen banaketa sexuaren arabera



## 1. Programazioaren analisia

### 1.2. Prezioak

2. grafikoa. Sarreraren prezioaren mediana sexuaren arabera




Gizonek bakarrik interpretatu, sortu edo zuzendutako emanaldietako sarreraren prezioa garestiagoa da emakumeak soilik dituzten emanaldiena baino.

Aldea nabarmenagoa da zuzendaritzan (3 € garestiago gizonek zuzendutako emanaldiak) eta, batez ere, egiletzan (5,75 € garestiago).

## 1. Programazioaren analisia

### 1.3. Esparruen edukiera

3. grafikoa. Gizonen eta emakumeen presentzia esparruen edukieraren arabera




Aztertutako hiru aldagaietan, emakumeek osatutako taldeek presentzia galdu dute esparru handietan (500 besaulki baino gehiago), banaketa orokorrarekin alderatuta. Aldiz, gizonen presentzia handitu egin da, antzezleen kasuan izan ezik, horietan talde mistoak baitira gehiago.

Gainera, edukiera txikiagoko esparruetan emakumeek antzeztutako, sortutako eta zuzendutako antzerki gehiago dago, eta banaketa orokorrean duten presentzia hiru kasuetan gainditzen da.

## 1. Programazioaren analisia

### 1.4. Hizkuntzak

4. grafikoa. Emanaldien hizkuntza taldearen sexuaren arabera




Emakumeek presentzia handiagoa dute euskarazko obren egiletzan, banaketa orokorrarekin alderatuta eta, batez ere, zuzendaritzan (euskarazko lanen erdiak baino gehiago zuzentzen dituzte).

Aitzitik, gizonak askoz ere gehiago ordezkaturik daude gaztelaniazko obren egiletzan eta zuzendaritzan.

## 1. Programazioaren analisia

### 1.5. Antzerki-generoa

5. grafikoa. Antzezleen taldeen banaketa sexuaren arabera antzerki-generoetan



Interpretazioan emakumeen eta gizonen presentzia **nabarmen** aldatzen da antzeztutako obren generoaren arabera.

Azpimarratzekoa da **emakumeen presentzia bakarrizketetan** (interpretazioen ia erdiak) eta testu-antzerkian (banaketa orokorrean baino zerbait bat gehiago).

**Magia, zirkua eta kaleko antzerkia** bezalako generoak **argi eta garbi maskulinoak** dira interpretazioari dagokionez.

\* Ohar metodologikoa: egiletzaren eta zuzendaritzaren eremuen lagina murriztagoa da antzerki-generoei dagokienez; beraz, interpretazioari buruzko datuak baino ez dira erakusten.





## 2. Sorkuntzaren analisia

## 2. Sorkuntzaren analisia


### 2.1. Banaketa orokorra



EAEEn 2023an sortutako obrek **parekotasun handiagoa erakusten dute gizonen eta emakumeen artean programazioarekin alderatuta**, egiletzan izan ezik; izan ere, esparru horretan ehuneko 20 puntutik gorako aldea dago gizonekiko. Horietan, aldea 9 puntukoa da, eta, zuzendaritzan, gizonen eta emakumeen presentzia antzekoa da.

Taldekideen sexuaren arabera banaketak, gainera, datu parekideagoak eskaintzen dizkigu antzezle-zerrenda eta zuzendaritzetan; **gizonak bakarka edo beste gizon batzuekin**, ordea, askoz ere presentzia handiagoa dute egiletzan ( % 58 gizonak dira eta % 26,8 emakumeak).


6. grafikoa. Taldeen banaketa sexuaren arabera



## 2. Sorkuntzaren analisia

### 2.2. Hizkuntzak

7. grafikoa. Sorkuntzen hizkuntza taldeen sexuaren arabera



\* Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioarekin

Emakumeek, banaketa orokorrarekiko, euskarazko askoz ere obra gehiago zuzentzen dituzte, eta 2023an EAEn ekoiztutako obren erdia baino gehiago zuzentzen dituzte. Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa duten obren zuzendaritzan eta egiletzan ere presentzia handiagoa dute.

Gizonek presentzia handiagoa dute gaztelaniazko obren egiletzan banaketa orokorrarekin alderatuta, baita hizkuntzarik gabeko obren interpretazioan eta zuzendaritzan ere.

# 3. Alderaketak




### 3. Alderaketak

#### 3.1. Aldeak emanaldien eta sorkuntzen artean

EAEn programatutako eta ekoiztako emanaldiak alderatzean, ikusten dugu **EAEko sortze-prozesuetan parekotasun handiagoa** dagoela, baina egiletzan eta zuzendaritzan ehuneko 6 eta 10 puntu artekoa.

Gainera, EAEn jatorria duten emanaldi programatuak eta bertan ekoiztako obrak alderatzen baditugu, **programazioan emakumeen presentziaren murrizketa bera ikusten dugu.**

8. grafikoa. Taldeen banaketa orokorra sexuaren arabera



\* EAEn programatutako antzerki-emanaldiak, EAEn ere ekoiztiak

### 3. Alderaketak

## 3.2. Gizonen eta emakumeen presentziaren bilakaera antzerki-jardueretan 2017 eta 2023 artean

1. taula. Gizonen eta emakumeen presentziaren bilakaera antzerkiaren programazioan eta sorkuntzan EAEn

			2017	2023	
PROGRAMAZIOA	Interpretazioa	EMAKUMEEK	% 48,00	% 47,00	=
		GIZONAK	% 52,00	% 53,00	=
	Egiletza	EMAKUMEEK	% 32,00	% 31,00	=
		GIZONAK	% 68,00	% 69,00	=
	Zuzendaritza	EMAKUMEEK	% 32,00	% 36,00	+
		GIZONAK	% 68,00	% 64,00	-
SORKUNTZA	Interpretazioa	EMAKUMEEK	% 61,00	% 55,00	-
		GIZONAK	% 39,00	% 45,00	+
	Egiletza	EMAKUMEEK	% 39,00	% 40,00	=
		GIZONAK	% 61,00	% 60,00	=
	Zuzendaritza	EMAKUMEEK	% 38,00	% 48,00	+
		GIZONAK	% 62,00	% 52,00	-

Emakumeek eta gizonek antzerki-jardueretan duten presentziaren **bilakaeran alde txikia** ikusten da **2017 eta 2023 artean**.

Gehien aldatzen den eremua eta, gainera, parekotasunera hurbiltzeagatik zentzu positiboan aldatzen dena, **zuzendaritza** da. Programazioaren eta antzerki-sorkuntzaren zuzendaritzan emakumeek presentzia handiagoa dute, eta **antzerki-sorkuntzetan** oso modu nabarmenean egiten dute gora (ehuneko 10 puntuko hazkundearekin), aztertutako eremuen artean parekideena izanik.

Hala ere, **sorkuntzen interpretazioan emakumeen presentziak behera egin duela** ikus dezakegu, ehuneko 6 puntuko aldearekin 2023tik.